

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2006KO MARTXOA


Euskal Autonomia Erkidegoko industri jarduerak urte arteko %6,0ko hazkunde-tasa izan du 2006ko martxoan

Urteko lehenengo hiruhilekoko hazkundea %8,0koa izan da 2005eko lehenengo hiru hilabeteetan

EUSTATEN datuen arabera, eta lan-egutegi homogeenari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa 2005eko martxoaren aldean %6,0 hazi da 2006ko martxoan. Urteko lehenengo hiru hilabeteetan %8,0 hazi da (2005eko aldi beraren aldean), energiaren eta ekipamenduko ondasunen sektoreek bultzatuta.

2006ko martxoan, eta 2006ko otsailaren aldean, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa %1,0 murriztu da baina estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean. Beraz, otsaileko desazelerazio txikiak (%-0,6) martxoan ere jarraitu du (%-1,0).

Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabetea



Iturria: Eustat

Sektoreen arabera bilakaera

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusien sailkapena kontuan hartuta, 2006ko martxoko indizearen bilakaerak (2005eko martxoaren aldean) gehikuntzak izan ditu sektore guztietan: energiak urte artean %26,6ko bilakaera izan du, kontsumo-ondasunak %11,3 gehitu dira (kontsumo-ondasun iraunkorrak %6,7 eta kontsumo-ondasun ez iraunkorrak %13,5), ekipamenduko ondasunek urte artean %5,7ko aldakuntza positiboa izan dute eta tarteko ondasunak dira urte arteko gehikuntzarik txikiena izan dutenak martxoan (%0,7).

2006ko otsailaren eta 2006ko martxoaren arteko aldakuntzak kontsumo-ondasun ez iraunkorretan baino ez dira izan positiboak (%4,9); gainerako talde eta azpitaldeetan aldakuntzak negatiboak izan dira. Hilabete batetik bestera, energia %5,4 murriztu da, ekipamenduko ondasunak %1,1 murriztu dira eta tarteko ondasunak %0,5. Kontsumo-ondasun iraunkorren azpitaldea %1,7 murriztu da, baina kontsumo-ondasun guztiak hilabete artean %2,7ko gehikuntza izan du kontsumo-ondasun ez iraunkorren (%4,9) eragin positiboari esker.

Lurralde Historikoen arabera bilakaera

Lurralde historikoen arabera, Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaerak positiboak izan dira sektore guztietan; izan ere, Bizkaian %9,3 hazi da, Gipuzkoan %4,7 eta Araban %2,2.

2006ko otsailetik martxora bitarteko hazkunde-tasak lurraldearen arabera desberdinak izan dira: Araban %4,5 gutxitu da tasa hori Bizkaian %-0,1 murriztu da eta Gipuzkoan aurreko hilabeteko maila bera mantendu da (%0,0).

Taula: 2006ko MARTXOA. Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen aldaketa-tasak (%).

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazionalizatua	
	Mar06/Mar05	At/At-1 (1)	Mar06/Ots06	Ots06/Urt06
Indize orokorra: Euskal AE	6,0	8,0	-1,0	-0,6
Araba	2,2	9,3	-4,5	0,6
Bizkaia	9,3	9,4	-0,1	-0,7
Gipuzkoa	4,7	5,8	0,0	-1,1
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	11,3	5,4	2,7	1,0
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	6,7	5,1	-1,7	-0,7
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	13,5	5,6	4,9	1,9
Ekipo-ondasunak	5,7	11,5	-1,1	-2,1
Bitarteko ondasunak	0,7	2,7	-0,5	-0,4
Energia	26,6	27,2	-5,4	1,2

(1) t urteko urtariletik azken hileraren arteko metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, t-1 urteko aldi berberaren aldean.

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp